Euskararen ikerketarako oinarrizko liburu baten aurkezpena

Iragan ostiralez, Madrid-eko La Casa del Libro deritzan liburudendako aretoan aurkeztu zuen Euskaltzaindiak Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak biltzen dituen liburua. Lehenago, azaroaren 27an aurkeztua zuen Arabako Diputazioan Ramon Labaien Kultur Kontseilariaren zuzendaritzapean, liburu horren argitalpena Eusko Jaurlaritzaren babespean egina denez. Abenduaren 4an ordea, Jardunaldi haietako ekintza bera nazioartekoa zenez, herbesteko zabalkundeari begira, Real Academia Española-rren laguntzaz egin da. Jardunaldietara etorri ziren atzerritaren Enbaxadetako Kultur ordezkariak gomitatuz. Baita ere, era berean, han ziren Euskal Herriko zenbait senatore eta diputatu, Euskal Etxekoak eta Aralarko San Migel Anaidikoak.

Ospe handiko aurkezpena baderitzagu ere, oroi Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak Euskaltzaindiaren ekintza nagusienetakoa izan dela, euskararen ikerketak gaurkotzez aparte, ikerketarako era berriak agertzen dituela. Erresuma askotako euskalariak elkar pertsonalki ezagutzeaz gainera, ikerketak gaurkotzea bai zen Jardunaldi haien helburua.

Hiztegi bilketak, euskalkirik euskalkiko aditz bildumak, literatur lanak eta abar, 1920.urtetik ***Euskera*** *aldizkarian ematen ari da Euskaltzaindia, baina aldizkari horrek elkargoaren lanketazko gorputza erakusten baldin badu ere, hortik apartekoak maiz argitaratzen ditu. Lanik nagusienen artekoak ditugu Azkuek Euskaltzaindiaren eskariz egin zuen* ***Morfologia Vasca*** *(lehenik* ***Euskera****-n zatika argitaratua eta gero liburu bezala),* ***Euskararen Liburu zuria*** *(1978), edizio bat euskaraz eta beste bat gaztelera, eta hamaika tomok burutzen duten* ***Estudio Socio-lingüístico del Euskara,*** *1979an argitaratua, 1975era arteko datoak jasotzen dituena. Oraindik orain hizkuntzarekiko gizarte arazoak ezagutzeko libururik sakonena da. Honen laburpena, Martin Udaldek gertatua,* ***Hizkuntz borroka Euskal Herrian*** *(1979). Egia esan, azken lan horiek Siadecok egin zituen Euskaltzaindiaren aginduz eta beronen zuzendaritzapean; euskararen egoera ahalik sakonen ezagutu nahia eta holako lan bat burutzeko asmoa Euskaltzaindiako zenbaitegandik sortu bai zen, eta ez kasualidadez. Horregatik, horiek burutu ondorean, beharrezkoa zitzaion Euskaltzaindiari beste lan garrantzitsu batean sartzea eta hortik heldu zen Euskalarien Nazioarteko Jardunaldien asmoa.*

Gure Hizkuntzaren fonologia, tipologia, sintaxia, dialektologia eta aditzaren morfologia hartu ziren oinarri eta gai bakoitzaren gidaritza atzerritar baten lepora utzi, A. Martinet, A. Tovar, T.H. Wilbur, J. Alliéres eta R.L. Trask jaunak izan ziren, ordena berean, gai bakoitzaren txostegileak. Hitzaldien hasieran J. Haritschelhar euskaltzain buruordeak orainarte eginak ziren ikerketeri buruzko txostena irakurri zuen eta guztien bukaeran K. Mitxelenak hemendik aurrera nondik eta nola beharko ditugun jarraitu. Gai horien barnean beste hogetabost aurkezpen irakurri ziren, bertako eta kanpoko euskalariak eskainak. Arrotzen artetik aipamen berezia merezi dute ondoko jaunandre hauek: J. Braun poloniarra, G. Brettscheider alemana, S. Dzidziguri, S. Gabunia eta N. Sturua errusia eta georgiar, J.G. Heath eta K. MacMurraugh ifar-amerikarrak, G. Rebuschi frantzesa, T. Shimomiya japondarrak eta H.G. Mukarovsky, austiarra.

Aintzinatik euskararen jatorriz, izakeraz eta bere barne egituraz kezkaturik ibili diren euskalarien eritziak jasotzen dira liburuan, bakoitzaren ikerketak nondik doazen edo zein diren lortu dituzten helburuak. Hoiek dira liburu berezi honetan biltzen diren lanak. Hizkuntzaren ikerketaz aldi berri bat idekitzen du euskaldunon historian eta urte askotarako oinarrizko liburua deritzagu. Gainera, liburu honek ***Iker*** *deritzan sail berri bati hasiera ematen dio.*

Zazpi txosten eta hogetabost aurkezpenek osatzen dute liburuaren gorputz nagusia, Jardunaldi haietan agertu ziren ordena berean. Lan bakoitza han orduan irakurri zen hizkuntzaz dator esta beste hiru hizkuntzatan lanaren laburpena (batzarretarako hautatu ziren lau hizkuntzak: euskara, ingelesa, española eta frantzesa izan ziren). Horrez gainera, jardunaldien kronika, sarreraz egin ziren agurrezko hitzaldiak, matrikulatuen izen-deitura zerrendak, aurkibideak eta abar. Liburuaren azala Eduardo Txillidak egina da. 23 por 16 zentimetroko neurrian 545 orrialde ditu testuz eta beste zortzi argazkiz. Egunotan, Durangoko liburu azokan jarri da salgai.

Juan SAN MARTIN

La Real Academia de la Lengua Vasca, Euskaltzaindia, presentó en La Casa del Libro (Espasa-Calpe, S.A.) de Madrid, el extraordinario volumen que recoge los trabajos leídos en los Encuentros Internacionales de Vascólogos. Anteriormente lo había hecho en la Diputación Foral de Alava. Este acto de Madrid se llevó a cabo con la participación de la Real Academia Española y la asistencias de varios agregados culturales de embajadas de las naciones de algunos euskarólogos. También estuvieron presentes varios diputados y senadores vascos y miembros de Euskal Etxea, y de la Hermandad de San Miguel de Aralar.

Los Encuentros que tanta resonancia tuvieron en agosto de 1980, brindaron oportunidad para los contactos personales entre los lingüistas de diez países interesados en las investigaciones del vascuence. En los mismos se leyeron un total de treinta y dos trabajos entre ponencias y comunicaciones, centrados especialmente en materia de fonología, tipología, sintaxis, dialectología y morfología del verbo, en las que marcaron la pauta A. Martinet, A. Tovar, T.H.Wilbur, J.Alliéres y R.L Trask, respectivamente. Con un preámbulo de J. Haritschelhar sobre el estado en que se hallaban las investigaciones y cerrando con un epílogo de L. Michelena sobre las perspectivas para ahondar de cara al futuro. Dentro de los temas citados se leyeron sendas comunicaciones de otros investigadores, entre los que convendría destacar a J. Braun, G. Brettschneider, S. Dzidziguri, S. Gabunia, J.B. Heath, K. MacMurraugh, H.G. Mukarousky, G. Rebuschi, T. Shimomiya, N. Sturua, etc. y que ahora se publican en un volumen de 545 páginas para iniciar la colección **Iker,** que Euskaltzaindia dedicará para trabajos de investigación lingüística.

El acto comenzó con unas palabras de salutación del académico Pedro Sainz Rodríguez, a las que siguieron las del R.P. Villasante, presidente de Euskaltzaindia, y a continuación los señores Tovar y Michelena explicaron el contenido de la obra, resaltando la importancia de la misma para la lingüística en general y para la lengua vasca en particular. Pues la obra supone un gran avance en los estudios del euskara y durante muchos años será básica para los investigadores.

San Nikolas jaia Gipuzkoa eta Araban

Nere haurtzaroko urteetatik gogoan bizirik gordetzen dudan lehen euskal kanta San Nikolas egunean Arrasateko kaleetan abesten genuena da. Biatoristen erdal ikastetxe hartan ikasitako bertsoak —ez ikastetxean bertan sortuak, noski— oraindik gaurregun entzun daitezke Abenduaren 6.an, herriko umeteriak, kalez kale, emale onaren bihotza ukitu nahian diharduelarik. Ikastetxetik goizeko lehen orduan irten ohi ginen taldeka, eta denda, taberna edota Udaletxe aurrean haizetara jaurtikitzen genituen kantaren ahapaldiak, leiho eta balkoietatik botako zigutenaren zai. Gozoki, intxaur, mahaspasa, ... txanpon batzu ziren gure helburu egun hartan. Kanta eskale bezala kontsideratzen dugu San Nikolas eguneko hau. Honela dio euskara eta erdaraz osatutako kanta gogoangarriak:

San Nikólas coronado
Arzobispo Mariandres.
A la luna noche y dia
etxekoandra noblia:
egizu egizu pillia.
San Nikolas, triskilistras
dame una castaña
y no quiero más.

Aquí estamos cuatro
cantaremos dos
para San Nikolas
por amor de Dios.
Belengo portaleko
ate zabaletan
hotzak ikaraz dago
Jesus lastoetan.

Angelitos somos
suspi-suspiramos
lukainka, txorizo:
neskai bapez, mutilai dana...

Azkenengo zati honetan sortzen zen izkanbila, mutikoek dena heurentzat eskatzen zuten bitartean neskatilek beren eskubidea erreibindikatzen baitzuten.

Baina, egia esateko, guztiontzat izaten zen justizia.

Umeak izan al dira beti eskaleak? Ez al zuten aintzinean nagusiek ere parte hartuko? Arrasaten ez dakit, baina Oihartzungo albiste batek adierazten duenez, 1688.an debekatu egin zen nagusiak eskean ibiltzea, harmaturik ibiltzen omen baitziren. Geroztik haurrak bakarrik ibiltzen dira.

Arabako bi kasu aipatu nahi dut, egun honetako ospakizuna dagokionez. Agurain eta Zalduondo dira herri hauek eta nahiz eta oso hurbil egon kantak nahiko desberdinak direla kontura gaitezke. Agurainen herriko umerik aplikatuenak jantzi bereziz apainduta irtetzen ziren eguna ospatzera. Hain zuzen ere, nere aitona zenari askotan entzun ahal izan diot ohitura honen aipamena. Haren etxetik kaleratu ohi zen urtero eskolako ikaslerik onena, Gotzai edo Obispoz jantzita, sotana, elizatorra, kapa, mitra, bakulo... zeramatzalarik. Eta herriko haurrek jarraitzen ziotela, honela abesten zuten:

San Nicolás coronado
que el Obispo es muy honrado
si nos dáis o no nos dáis
aquí no nos detengdis,
porque ***semos*** *escolanos*
del glorioso San Nicolás.

Aquí estamos cuatro,
cantaremos dos:
una limosnita
por amor de Dios.

Amaitzean "Gure Aita" bat esaten zuten, ostera ere errondari ekiten ziotelarik. Semos azpimarratu dut. Nere aitonak esana dakit, urtero urtero D. Markos Sagastik —Aguraingo maixu ahaztezina— era honetaz esaten ziela kanta saiatzen ari zien haurrei: "No se dice semos, se dice somos". Etxe guztiak bisitatu ondoren umeak eskolara biltzen ziren, hartutako guztia maixuak eskaleen artean banatzeko. Zalduondoko herriak Blas Arratibel lagunari zor dizkiot. Berak dionez, San Nikolas eguna ez da gaurregun ospatzen. Bere denboran, berriz, alaitasunez eratzen zen jaia eta atez ate joaten ziren eskapena egiten:

San Nicolás coronado
el Obispo es muy honrado
San Ignacio maculo
Maria madre de gracia
madre de misericordia
¡Aleluya!, ¡Aleluya!.

Angeles somos
del cielo venimos
a pedir andamos,
naranjas y limones
para honrar estos pendones,
cuartos para oir misa
para honrar esta camisa.
Si nos dáis o no nos dáis
aquí no nos entretengdis.

Aquí estamos cuatro
cantaremos dos,
una limosnita
por amor de Dios.
San Nicolás, tris-tras
hasta otro año no volvemos más.

Behin bertsoak abestuz gero honako agur hau eskaintzen zioten etxekojaun nahiz andreari: "La despedida al amo, lo que a ninguno la hemos dado. Sólo a Vd. que se merece, por lo bien que se ha portado". Avemaría bat esan ondoren beste etxe batetara abiatzen ziren.

Umeen munduaren zenbait eredu ditugu aurrekoak. Haien eztarrietatik irtendako bertso hauek, mai[illegible] koak, eguneko gizartearen m[illegible] ria —une batez, behinkepe[illegible] tzen dutela deritzait. Hon[illegible] ditut atsegin urtero urtero en[illegible]

Jose Mari VELEZ DE ME[illegible]

San Nicolás es el person[illegible] conocido por los niños de [illegible] mundo, que premia con gen[illegible] a todo aquel que durante el [illegible] venido comportándose [illegible] mente. De la misma manera [illegible] nuestros sueñan con los [illegible] Magos u Olentzero, otros [illegible] niños tienen puesta su ilusión [illegible] santo de luenga barba blanc[illegible] risa dulce. De todos modos, [illegible] giones en nuestro País que c[illegible] —o lo han hecho— la festiv[illegible] San Nicolás, como preámbul[illegible] cercana Navidad.

Los casos de Mondragón, O[illegible] en Guipúzcoa, Salvatierra [illegible] duendo en Alava, son los [illegible] eštos momentos recuerdo. E[illegible] localidades la chiquillería [illegible] durante el día 6 de Dicie[illegible] calles y caseríos en busca [illegible] dulce, nuez, castaña... o ata[illegible] das, que les es lanzado por [illegible] sona que ha sido rondada.

En Mondragón la tradi[illegible] mantiene aún, afortunada[illegible] viva. Los primeros versos de [illegible] ticulo pertenecen a esa [illegible] guipuzcoana. Es posible q[illegible] tiempos pasados postularan [illegible] sonas mayores, como es el [illegible] Oyarzun, donde una disposi[illegible] 1688 prohibió salir a pedir a[illegible] llas de hombres armados.

En Salvatierra el chico ma[illegible] cado de la escuela era disfraz[illegible] Obispo, al cual se le dotaba [illegible] tana, sobrepelliz, capa, mitra [illegible] culo. Los niños que le seguía[illegible] cantando, de puerta en puer[illegible] versos que aparecen en [illegible] lugar. Precisamente a mi [illegible] berle oído directamente a mi [illegible] materno que el Obispo sólo [illegible] todos los años de su casa, d[illegible] guardaba el disfraz, y q[illegible] Marcos Sagasti —maestro m[illegible] mado en Salvatierra— se c[illegible] año tras año en dar a enten[illegible] aquellos niños que "No s[illegible] semos, se dice somos". Una v[illegible] tados los versos rezaban [illegible] nuestro y con lo recogido p[illegible] se dirigían a la escuela d[illegible] maestro procedía al reparto.

Los datos de Zalduondo [illegible] a la gentileza del amigo Blas [illegible] bel. Según éste, hoy en día [illegible] no salen a postular. En su [illegible] cantaban las estrofas que p[illegible] tercer lugar. Una fórmula [illegible] dida y el rezo de una A[illegible] daba por finalizada la m[illegible] cida en casa. Y con la m[illegible] parte, hasta pasar por todos [illegible] tales del pueblo.

jeroglífico

¿Cómo te recibieron?

SOLUCION

CONMOVIDAS
(C O N, movidas)

CONTABILIDAD PARA COMERCIANTES

Curso patrocinado por el Departamento de Comercio y Turismo del Gobierno Vasco

Organización: Cámara de Comercio, Industria y Navegación de Guipúzcoa.

Celebración: En San Sebastián, a partir del 10 de diciembre, jueves, de 11,30 a 14 horas.

Programa (síntesis):
— Extructura de un Balance.
— Esquema del proceso contable.
— Síntesis del Plan Contable Español.
— Apertura, movimiento y cierre de ejercicios.
— Elementos auxiliares de la Contabilidad.
— Problemática fiscal actual de la pequeña empresa.

Asistentes: El Curso está orientado para quienes no conocen o tienen muy pocas nociones sobre Contabilidad.

Objetivos: Que los asistentes al Curso hayan adquirido a su término unos conocimientos básicos y prácticos sobre Contabilidad, válidos para cualquier actividad.

Información e inscripciones: Cámara de Comercio, Industria y Navegación de Guipúzcoa. Aguirre Miramón, 2 — Teléfono 27 21 00.